

noaua



**Emakumeen Etxea,
irekieratik
hurbilago**

**Errigorak abiatu
du udazkeneko
kanpaina**



**Arrastalu: “Askatasuna plazako
zeramika lanek herriko egunerokoa
irudikatzen dute”**



FINKA ADMINISTRATZAILEA
AHOLKULARITZA ZERBITZUA
INMOBILIARIA
ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO



munalurra 8, USURBIL

FUNERARIA
GONZALEZ
EHORZTETXEA

OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN GUZTIAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24 orduz)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es



errigora.eus

urriak 22 - azaroak 10

Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka

Bat egiteko
garaia da

Eskatu saskiak eta lagundu
horien balioaren %25arekin
Nafarroa hegoalde eta erdi-
aldeko euskalgintzari.

noqua

aek



Sortzen



Albisteak iruditan

Atzegiren kanpaina berria aurkeztu dute, 'Nire erara bizitzeko erronka' lemapean

Atzegiren kanpaina berria iritsi da Beterri-Buruntzara. Urriaren 20an aurkeztu zuten Hernanin. Aurtengo sentsibilizazio kanpainak desgaitasun intelektuala duten pertsonen nola bizi nahi duten erabakitze eskubidea aldarrikatzen du.

Atzegik gizartearen zati handi baten-tzat oraindik ezezaguna den alderdi bat ikusarazi nahi du sentsibilizazio kanpaina honen bitartez. Adimen desgaitasuna duten pertsona askok modu independentean bizitzeko adina autonomia daukate eta gainontzekoen antzeko bizi-proiektua izan dezakete, betiere beharrezko laguntza jasotzen badute.

Modu independentean bizitzeko grina
Kanpainako protagonistak modu indepen-



Beterri-Buruntza mailako aurkezpen ekitaldia urriaren 20an egin zuten, Hernanin.

dentean bizi diren hainbat pertsona dira eta Atzegiren laguntza jasotzen dute, euren beharren arabera: "babes emozionala,

erosketekin antolatze gainbegiratzea, sukaldean aritzeko trebakuntza edo etxe-ko ekonomia antolatze laguntza".

Laburrean

Azaroaren 26an, 1969an jaiotakoen bazkaria

Maykar jatetxean batuko dira. Izena emateko 50 euro ordaindu behar dira Rural Kutzako ES32 3008 0259 1547 7191 6121 kontu zenbaki honetan. Izena emateko epea: azaroak 22 arte. Bazkaria 14:30ean hasiko da baina 12:00etan batuko dira Txapeldun tabernan.

Buztinzulo taldeak zeramika ikastaroa antolatu du

Astelehenetan batuko dira, 17:30etik 19:30era. Izen-ematea azaroaren 2an amaituko da. Ikastaroa azaroaren 7an hasi eta maiatzaren 29ra arte luzatuko da. Kuota: Hilean 25 euro. "Anima zaitez eta jarri gurekin harremanetan helbide hontan: buztinzulo@gmail.com".

Peña Pagola elkarteko bazkide egiteko aukera

Kalezarko Peña Pagola elkarteko bazkide izateko aukera zabalik izango da abenduaren 15era arte. 18 urtetik gorako edozeinentzat irekita, Usurbilen bizi behar du. Informazio gehiagorako edo bazkide egiteko, bi telefono zenbaki dituzue eskura: 625 701 616 / 653 716 394.

noaia

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaia.eus /// www.noaia.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordintzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaia.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ugaitz Agirre

Joaneko txartelarekin bakarrik joan nintzen Bartzelonara. Aspertzen nintzenean, bururatuko zitzaidan moduren bat itzultzeko. Merke esan nahi dut. Askatasunagatik zen. Opor luzeak nituen, eta zure lanak nahi bezain sarritan elkarrekin egotea izorratzen zigunez, manera aproposa iruditu zitzaidan.

Okina baitzinen. Gogoratzen ze ilusioa egin zizun hitz hori euskaraz ikasteak? Ikasi zenituen ere irina, legamia, ura eta gatza. Ogia. Behin, etxean egin zenuen niretzat. Ogi egin berriaren usainak etxe osoa inbaditu zuen, eta zer den pazientzia eza, mingaina erre nuela.

Eroa!

Ez al ziren erokeriak egiteko?

Minik ematen ez dutenean, memeloa!

Nik umorez ikusten banuen ere, benetan larritu zinen be-roagatik garrasika hasi nintzenean. Ur txorrotadaren azpian mihia jarri nuen zure aholkuz. Bitartean, ze tontoa izan nintzen adierazteko zenekizkien forma guztiak zerrendatu zenizkidan.

Aldiz, bidaiarena inori min ematen ez zion erokeria zen. Bizitza hankaz gora jarri nizula esatea gehitxo bazen ere, grazia askorik ez zizun egin. Ez ideia txarra zelako, sekulako irrika eragiten zizun ni-

Biharrrak inoiz ez daki (2)



“Joaneko txartelarekin bakarrik joan nintzen Bartzelonara”.

UGAITZ AGIRRE

“Pentsatzen nuen: nola ostia konbentzituko dut Lau lauzpabost eguneko bidaia egiteko?”

rekin bidaiatzeak. Lan egutegia zen arazoa, ordea. Okinaren galtza zuriak janzen ari zinela proposatu nizun berriz ere.

Zoratu al zara?

Aitortu behar dizut baietz, nik sofatik. Zer da bizitza erokeriari gabe?

Agurreko muxua ematera hurbildu zinen.

Ez nago txantxetarako, Ugaitz, esan zenidan erdi serio. Kolperik jotzen ez duen lankide babo horrek lan gehiago jartzen dit gainera. Asteburua iristen denean, lasaia hitz egingo dugu.

Kanpotik lasai banintzen ere, barrutik haur mukizu bat nintzen nahi zuena ez lortzeagatik erretxinduta. Zurekin

bidaiatu gura bainuen, zu zeu ezagutzeko, are gehiago, zure baitan murgiltzeko. Elkar egote intermitenteak ez zidan laguntzen zure barne erraiak ikusten. Larrutarako biluzten ginenean ere, nire izena jarri zenion argi urdinak bustita ikusten zintudan. Bai, esan ohi dudana bezala, ze sunormala nintzen hala pentsatuta, ze begiek denaren berri ematen dute!

Loak hartu ninduen ni neroni madarikatzen ari nintzenean, eta begiak zabaltu nituenean, nire baitan bilduta zinen koala bat zuhaitzera nola. Ez zintudan esnatu nahi, eta, halere, esnatu zintuen nire betazalen mugimenduak. Oraindik irin pixka bat zeneukan masailetan.

Egun on, Lau, zer moduz joan da gaurkoa?, xuxurlaka.

Ezpainak hurbildu zenizkidan eta pa baten ostean, berriro ere bularraldean jarri zenuen burua loak hartzeko. Barkatu izkinaren

batekin jo bazenuen ohera eramane zintudanean. Sofa ez da atsedenerako leku eroso.

Isilean gosalduta, eta kale-ira irten nintzen ahal bezain pronto. Bizarra ere ez nuen egin, nahiz eta azkura izaten hasi eta zuri ez gustatu muxu ematerakoan. Sudur puntak sufitzen zuen gehien. Bueltan moztuko nuela esan nion nire buruari. Ez zintudan esnatu nahi.

Ibiliaren ibilian, eramateko kafea hartu nuen auzoko kafetegitxikian, eta urrats desbideratuek memorian iltzatuta geratu zitzaidan parkeraino itzuli ninduten. Lehengo hartan musika bandak girotzen zuen, eta sardana baten erritmora dantzan jarri ziren bertaratuak. Zuk krokis bat egin zenidan nola dantzatu esplikatzeko.

Itzulera honetan ez zen ez musika bandarrik, ez sardanarik dantzatzeko zuen dantzaririk. Erretiroa hartutako jendea, erosketak egitera zihoazen etxeko andreak, zakurra paseatzera atera zutenak... eta ni. Pentsatzen nuen: nola ostia konbentzituko dut Lau lauzpabost eguneko bidaia egiteko? Gaur bezala sofan lotan itxarongo diot eta nire alboan lokartzen denean, besoetan hartu, eta kotxean sartu. Bejondeizula Ugaitz! Irtenbideak aurkitzen onena zara.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

Artzi
barkariak EGUNERO
afariak: OSTIRAL/LARUNBATA
☎ 943 362725
☎ 688 690 361

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

GuraSOS: “Kaleak bete behar ditugu berriro”

Er-raustegiaren itxiera prebentiboa sustatuko duen fase berri bat abiarazi duela iragarri eta partekatu zuen GuraSOSek iragan ostegunean Sutegin antolatu zuten bilera jendetsuan.

Etapari berri bat abiarazi du GuraSOSek; orain arteko bide judizialari segida emango diotena, baina batez ere kaleko presentzia berreskuratu nahi duena. Aurrera begirako estrategia partekatu eta urteotan bidelagun izan duen zientzialarietako baten, Fernando Palaciosen hitzaldia entzuteko aukera izan zuten iragan ostegun iluntzean. Sutegiko auditorioa goraino bete zuten herrikide, nahiz herri eragile, ikastetxe, sindikatu edota mugimendu ekologistako ordezkariak. “Guztion lana beharrezkoa da”, gogorarazi zuen GuraSOSeko ordezkari Joseba Belaustegik. Egoera hau iraul-



GuraSOSen xede nagusia da Zubietako erraustegia prebentiboki geldiaraztea.

GURASOS

“Ez dugu epaitegietan irabaziko. Kaleak bete behar ditugu berriro”

tzeko, “ezinbestekoak zarete”, nabarmendu zien Sutegira joandakoei.

Urteotako borroka judizialaren ibilbidea errepasatu zuen. 2019an erabaki zuen hain zuen GuraSOSek bide pena-

la zabaltzea. Ordutik besteak beste auzitegietan da, Arkaitzerrekan izan diren urteotako hondamendiak.

Laguntzarako eta mobilizaziorako deia

“Gipuzkoako Foru Aldundiak bahituta ditu GuraSOS taldearen kontuak”, dio GuraSOS zabaltzen hasia den idatziak. Egoera horren aurrean, “auzolanean, osasuna eta inguru-

mena babesteko eta etorkizun iraunkorra bermatzeko beharrezkoak diren zerbitzu eta materialak kontratatze eta ordaintzeko” diru ekarpenak egitera animatzen dute GuraSOSetik. Osteguneko aurkezpen ekitaldian Sutegin bertan mahaia jarri zuten. Asteotan ezagutaraziko dute baita non eta nola egin ahalko diren diru ekarpenok.

Mobilizatzeko deia ere egin zuten kultur-etxean. “Ez dugu epaitegietan irabaziko. Kaleak bete behar ditugu berriro”, nabarmentzen zuen GuraSOSek. Kalera ateratzeko deialdia egin zuten. Mobilizazio handi bat prestatzen hasiak dira, azaroaren 26-27ko astebururako Sutegin aurreratu zuten, “Orain bai, gelditu” aldarripean eta abiatu berri duten ziklo honetako kanpainaren xede nagusia betetzeko: Zubietako erraustegia prebentiboki geratzeko.

Erraustegi batek “beti beharko du zabortegi arriskutsu bat”

Orain artean bezala, GuraSOSen bidelagun izateko asmoa agertu zuen Fernando Palacios zientzialariak ere. Behar duten horretan laguntzeko prest eta baita kide gehiago erakartzeko ere. Hainbat aholku proposatu zizkion GuraSOS-i fase berri honi begira; ekintzak, informazioa, laguntza bilketa eta herrian eragitea besteak beste. CSIC-eko (Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorena) kide ohiak, edo Sutegin usurbildarren aurrean aurkez-

tu nahi izan zuen moduan, zientzialari jubilatutako honek hitzalditxo laburra eskaini zuen erraustegiaz Sutegin.

Beste behin gogorarazi zuen, birziklagarri eta berrerabilgarria den hondakinaren, edo hobekia go esanda lehengaien %80a errauts eta kean bilakatzen duela Zubietakoa bezalako planta batek. Eta horrek bai airean, uretan, lurrian eragiten duen kutsadura eta kaltea. Zaborte-gien itxiera iragarri izan den arren, argi dio Palaciosen,

“zabortegi arriskutsua” beharko du beti erraustegi batek. Madrilen, Valdemingomezeko erraustegian gertatu berri dena azaldu zuen. Berriki, aire librean dagoen errautsen biltegi bat aurkitu dute. Horrek eragin dezakeen arriskuaz ohartarazi dute bertako eragile ekologistek. Ingurunean soilik ez, ekonomia ere kaltetzen du erraustegi batek Palaciosen esanetan, lanpostu galera eragiten baitu. Aldiz hondakinak birziklatu eta berrerabiltzeak

onura gehiago. Erraustegi batek “alternatibak alboratzen ditu”. Eta epe luzera, herritarren osasunean eta ingurumenean “afekzioak izango ditu instalakuntzak”. Azken urteotan zientzialariak sarritan ohartarazi izan duten moduan, aireratzen diren partikula toxikoengatik edota errautsengatik. Eta kezkarria, “neurketak ez dira egiten ari, edo ezkututzen ari dira”. Herritarrei eragiten ari zaiena ere “ez dira ikertzen ari”.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

943 36 91 39

Otar-Goxo
Elkargaiak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Arrastalu: “Askatasuna plazako zeramika lanek herriko egunerokoa irudikatzen dute”

Askatasuna plaza eta inguruan duen parkean dagoen artelana berri-tze prozesua betean dago. Carlos Zabala “Arrastalu” arduratu da, duela 20 urte bezalaxe, artelan hori sortzeaz. NOAUA!-ekin izan da artista zaharberritze lanen nondik norakoak ezagutzeko.

NOAUA! Parke inguruko zeramikazko piezak konpondu eta aldatzen ari zarete. Denbora asko eramango al dute zaharberritze lanek?

Arrastalu: Bukatzen ari gara jada. Gure asmoa da azaroaren 5erako amaituta izatea. Aniztasunaren Eguna izango da eta lan hau ideia horretatik elikatuta dago. Lehengo lana zabaltzen ari gara orain.

Sortu dituzun pieza berriek zer adierazten dute?

2003an, plaza eta parkea egin berritan, ondo definitu gabe zegoen lekuaren funtzioa eta identitatea. Denborarekin erabilpenak erakutsi digu espazio hauek zertarako diren eta jendeak zertarako erabiltzen dituen. Asteazkenetan feria egiten dute aterpean, albo bietara parkeak daude haurrak eta gurasoak egoteko. Definizio hori badu jada. Orain egiten



Egunotan burubelarri aritu da Askatasuna plazan. Zeramika berriak ipintzeaz gain, zeudenak txukundu ditu.

ARRASTALU

“Duela 20 urte egindako lana zabaltzen ari gara orain. Gure asmoa da azaroaren 5erako amaituta izatea”

ari garen proiektuak bide hori jarraitzen du, haurrentzako leku bat prestatzen ari gara aterpean eta ume jokoak ere badaude tartean, kanikekin eta. Haurren nahiak irudikatu ditugu jirafa baten bitartez, animaliak orokorrean, aniz-

tasuna, neska-mutilen arteko harremanak... herriko egunerokoa irudikatzen dute eta espazio hauek gozatzen dituzten horiek daude irudikatuta zuzenean. Keinu bat egin nahi diegu herritarrei. Patri jatetxean ere bihotz batzuk daude zuhaitzetan, eta Haltzak berez ez du bihotzik, horregatik daude hor. Denborarekin, zuhaitzaren azalak bihotz horiek jan egingo ditu eta barruan geratuko dira. Modu horretara, jendeak jakingo du barruan bihotzak daudela eta herriko “sekretua” izango da. Alde poeti-

ko hori bilatu nahi izan dut lan honetan ere. Literatura eta arte plastikoen fusio bat da.

Duela 20 urte egindako lanak ere filosofia bera al du?

Herritarrei keinu bat egin nahi izan nien orduan ere. Artzainak, angulazaleak, oilasko biltzaileak, dantzariak, bertsolariak, bikote homosexual bat, kirolariak, herriko pertsona ezagunak... Momentuko errealitatea adierazten du. Aldaketa garai baten aurrean geunden, gizartean pil-pilean zeuden hainbat gai.

“Kalean urte asko irauteko material egokiena zeramika da”

NOAUA! Lan horrek 20 urte egingo ditu 2023an. Zein dira horrelako artelan bat apurtzeko kausak? Meteorologiak eragina izan al dezake?

Arrastalu: Artelanak, sortu berritan, eraso batzuk jasan zituen 2003an eta lehenengo urte eta hilabeteetan. Mosai-ko mota hau ez da ezaguna; zerbait oso berria da. Piezak erakargarriak dira, dizdira

dute eta pertsonaien begiak kristalezkoak dira. Oso normala da apaingarri hauek kentzen saiatzea eta etxera eramatea “souvenir” modura. Pieza txiki bat kentzen baduzu ez da ezer, ez du ezer irudikatzen. Mosai-ko bati tesela bat kentzea bezala da. Mosai-koek osotasunean dute balioa eta erakargarritasuna, tesela batekin ez dugu ezer egiten. Beraz, lehen

eraso horien ostean falta ziren piezak berriz jarri genituen eta egin beharreko aldaketa txikiak prestatu genituen.

Zeramika da gehien lantzen duzun materiala?

Pintura lantzen dut gehien bat, baina eskultura ere beti egin izan dut. Material ugari erabili ditut horretarako: brontzea, egurra, zeramika... Proiektu

hauetarako, kalean egon eta urte asko irauteko egokiena zeramika da.

Egurra denborarekin hondatu egiten da eta harria itxusitu egiten da. Gainera, estilo honetako zerbait egiteko harria oso hotza da, beste gozotasun bat behar du honelako lan batek. Buztina edo zeramika da horretarako egokiena.

“Aitonaren omenez hartu nuen ‘Arrastalu’ ezizena”

NOAUA! Laster 50 urte beteko ditu herrian dagoen zeramikazko beste artelan batek. Jose Luis Zumetaren frontoiko hormako lanak, hain zuzen. Gogoan duzu Zumeta lan hura egiten?

Arrastalu: Lagunak ginen biok. Tailerrean ere izan nintzen artelan hori egiten zuen bitartean. Emazteak asko lagunduzion proiektu horretan. Mojetako eskolaren azpialdean zeukan lehen labea. Lan asko egin zituen hark eta baita nik ere labe hartan. 2003an egin nuen proiektua (Askatasuna plazakoa) ez nuen labe hartan egin, jada banuen nirea.

Haren lana inspirazio iturri izan da zuretzat?

Laguna izan da, batez ere. Erreferentziazkoak beste batzuk ditut Palazuelo, Soroya eta artista surrealista orokorrean. Ni Irungoa naiz eta bertan Gaspar Montes Iturrioz margolaria izan nuen inspirazio iturri handia. Gaztea edo haurra nintzela kalean pintatzen ikusten nuen. Han egoten ziren usainak, pintzelak, margolanak... txundituta egoten nintzen begira. Hura ikustea izan zen niretzat ikastaro hoberena. Sekula ez dut ahaztuko hori.

Artelan gehiago ere badituzu beste herri batzuetan, ezta?

Getarian joan zen udan egin genuen oso mural polita. Oso gustora geratu naiz lan horrekin. Elkanori buruzkoa da, munduari bira emate horretatik tiraka sortutako lana da. Donostian ere enpresa erakitzaile batentzat egin nuen mural bat. Orain erdia falta du, zati batean nagusia edo aldatu eta kendu egin zuten eta. Orion daukat beste bat. Pixaleku zikin batean nuen lan hura. Oso leku iluna zen eta oso zikina zegoen. Libre utzi zidaten zerbait egiteko eta hormak, lurrea eta lorategian lan egiteko



Azaroaren 5ean, Aniztasunaren Egunean inauguratuko dute Askatasun plazako artelan berria.

ARRASTALU

**“Joan zen udan
oso mural polita
egin genuen Getarian.
Elkanori buruzkoa da”**

aukera izan nuen. Farolak ere egin genituen, pentsa. Ondoko elkarte gastronomikoan jarraipen bat egiten utzi ziguten hasierako proiektu hori oso txikia zelako. Zizurkilen egin genuen proiektua. Usurbilgoaren antzeko klabean irakurtzen da hori ere, herriko pertsonen keinu eginda eta hango sekre-

tuak biltzen dituen.

Badituzu proiektu gehiago datozen urteetarako?

Orain idazten ari naiz. Azaroan Usurbilgo proiektua bukatzean atsedean txiki bat hartu nahi dut eta idazten jarraitu.

Arrastalu da zure izen artistikoa. Nolatan ezizen hori?

Aitonaren ezizena zen Arrastalu. Abereen tratularia edo tratantea zen hura Irun inguruan ibiltzen zena. Zaldiz ibiltzen zen beti Kolon pasealekuan barne. Familia osoa Arrastalu izenez ezagutzen zuten, baina familian ez zitzairen

gehiegi gustatzen izen hori. Nik ontzat hartu nuen izena eta izen artistiko bilakatu dut. Aitona banandu egin zen eta amona baserrian utzita hainbat umerekin. Baserria eta lurak utzi zizkion, eta bera bikotekide berriarekin Argentinara joan zen bizitzera. Urteak pasatu ziren ordutik eta Diario Vasco edo La Voz de España edo halako egunkari batean orri osoko erreportaje bat ikusi nuen Argentinako Euskal Etxearen inaugurazioaren berri ematen zuena. Domingo Zabala Arrastalu ere han zen. Beraz, aitona omenez Arrastalu izen hori.

Mundualdian aurkeztuko dira zeramika berriak

Antolakuntzak irailean iragarri moduan, azaroaren 5ean ospatuko da Usurbilgo jatorri aniztasuna plazaratu ohi duen Mundualdia. Aurtengo edizioa, hainbat herrikide eta eragileek osaturiko Aniztasun Kontseilua aurkezteko baliatu nahi dute. Bi urteko etenaldiaren ostean, jakien dastaketa ere plazara bueltatuko da ekintzokin batera.

Azaroak 4, ostirala

■ 18:00 Tertulia filosofikoa Potxoenean, LH6ko ikasleei zuzendua, Oinherri herri hezitzailearen eskutik.

Azaroak 5, larunbata

■ 11:30-13:00 Munduko jolasak, Zirimararekin herriko frontoi inguruan.

■ 18:00 Herriko frontoian: -Aurkezpina. Alkatearen agurra

eta Aniztasun Kontseiluaren aurkezpina.

■ Jakien dastaketa.

■ Musika emanaldiak: Saul eta Alvaro herrikide nikaraguarak, eta Kawadeni taldea, Afrikako perkusio doinuekin.

Azaroak 10, osteguna

■ 18:00 Mario Zapataren hitzaldia Potxoenean, harrera protokoloen inguruan.

Maria Angeles laguntzeko herri erantzuna prestatzen hasi dira

Etxegabetze arriskuan den Maria Angeles Otegi 80 urteko herrikidea laguntzeko herri erantzun bat artikulatzen hasiak dira Usurbilen. Iragan ostiralean egin zuten, belaunaldi ezberdinak erakarri zituen lehen bilkura Artzabalaren.

“Zer egin liteke?” erantzun errazik ez duen galdera zail honen bueltan aritu ziren ostiral arratsaldean Artzabalgo aretoan. Zer eta nola egin, zerbait egin beharra dagoela argi izanda. Zaila eta bidegabea baita Maria Angeles herrikidea bizitzen ari den unea. Berehalakoa izan ez arren, etxegabetua izateko arriskuan da 80 urteko emakumea. Zer eta nola lagundu Maria Angeles, helburu horrekin bildu ziren urgentziaz iragan astean Udala, Usurbilgo EHBildu eta herriko hiru jubilatutako elkarteak, eta hor erabaki zuten urriaren 21eko Artzabalgo bilera deitzea.

Bilkura jendetsua izan zen, belaunaldi ezberdinak erakarri zituenak. Ohartarazpen argi batekin; “gutako edonori gerta dakiguke. Gaur Maria Angeles da, baina bihar ez dakigu nor izango den”, nor aurki daitekeen egoera berean, Usurbilgo alkateak gogorarazi zuenez.



Bide judizialaren helburua da “Maria Angeles bere etxean geratzea”.

KALERATZEAK STOP

“Etxea subasta publikora ateratzeko agindua emana dago, baina Kaleratzeak Stop plataformako abokatuak helegitea aurkeztua du. “Epaileari eskatzen zaio subasta agindua eten eta zorra ordaintzeko aukera ematea Maria Angelesi”

“Delitu bakarra, semea laguntzea”

Kaleratzeak Stop plataformara jo zuen Maria Angelesek laguntza eske. Eta bilgune honen bidez jaso zuen Udalak duela aste gutxi, herrikidea bizitzen ari den injustiziaren berri. Kaleratzeak Stop plataformatik

salatu zuten moduan, “egoitza Madrilén duen Reno Amusement SL mailegu-emailleak 60.000 euroko hipoteka-mailegua formalizatu zuen hildako semearekin, Maria Angelesen ordaindutako etxebizitzaren bermearekin eta epemuga aurreratuaren abusuzko klausularekin”. Tarte horretan semea hil zitzaion Maria Angelesi. Egun, aipatu dirutza hori ordaindu beharrean aurkitzen da 80 urteko herrikidea. “Bere delitu bakarra semea laguntzea izan da”, nabarmendu zuen alkateak Artzabalgo bilkuran.

Etxea subasta publikora ateratzeko agindua emana dago, baina Kaleratzeak Stop plataformako Maria Angelesen abokatuak helegitea aurkeztua

du. “Epaileari eskatzen zaio subasta agindua eten eta zorra ordaintzeko aukera ematea Maria Angelesi”, Artzabalgo bileran Solaberrietak azaldu zuen moduan.

Une honetan egoera zertan den zehaztu zuen: “helegitea tramitera onartua izan da”. Albiste ona den arren, “ez dakigu zer gertatuko den, Maria Angelesi zorra ordaintzeko aukera emango zaion” edo ez. Gaurkoz ez dago argi noiz eman go den ezagutzera ebazpena. Abian den bide judizialaren helburua, “Maria Angeles bere etxean geratzea da”.

Alkateak argitu nahi izan zuenez, etxegabetze arriskua hor dago bai, baina gaurkoz agindu hori ez da berehala gauzatuko eta geratzen den denbora tarte honetan gainera horixe saihestu nahi dute. Badirudi, kasu eskandalagarri hau hedabideetan agertu izanak bankuek Maria Angeles laguntzeko izan dezaketen jarreraren eragina izan duela. “Oihartzun mediatiko oso garrantzitsua izan du zorionez”, nabarmendu zuen Agurtzane Solaberrietak. Halere, Artzabalgo bilkuran argi utzi zuten moduan, herrikideak behar duen “diru guztia ez diete emango”.

“Antolatu egin behar gara eta prestatu”

Egoera honen aurrean, bilkura hasieratik herrian eza-guna den hitz gakoa mahai gaineratu zuten; auzolanarena. Uholdeak izan direnean, suteak... eta kasuotan herritarak kaltetuak izan direnean, “herriak oso erantzun ona eman izan du” laguntzerako orduan. Auzolan horri heltzea proposatu zuten Artzabalaren, oraingoan Maria Angeles la-

guntzeko. Herri erantzun bat eman nahi diote egoera bidegabe honi.

Herri erantzun hau artikulatzeko bi bide jorratzeko asmoa agertu zuten; batetik, Maria Angelesi egotzi dioten zorra ordaintzen laguntzeko crowdfunding kanpaina bat bideratzea. Dagoeneko plataforma ezberdinekin hartuemanetan direla adierazi zuten bileraren deitza-

leek. Bigarren bidea, injustizia hau plazaratzea, “haserrea irudikatzen” mobilizazioak proposatzea litzateke. “Antolatu egin behar gara eta prestatu”, deitu zuten.

Belaunaldiartekotasuna

Belaunaldi arteko elkartasun eta laguntza agerikoa zen bilkuran. Aztarrika gazte asanbladako ordezkaritza bat bertaratu

zen eta laguntzeko prestasun argia erakutsi zuten “antolatuko ditugun ekimenetan bildutako dirua” jartzeko, baita Maria Angelesen alde herrian deitu daitezkeen ekimenekin bat egiteko ere.

Artzabalgo bilkura amaieran bertaratu eta laguntzeko prest zirenen izen-abizenen zerrenda osatu zuten. Bileraren berri bat deitzekoak dira laster.

BUELTAN DA

USURBILGO

TON-BOLA

**Sari pila bat daude
kaxa barruan.
Lortu zeurea!**

**Establezimendu bakoitzean
sari hauek irabazi ditzakezu:**

- Kirol kamera 1
- Mendi makilak 1
- Trolley maleta 1
- Yoga estera 1
- 4 kirola egiteko mugikor zorro
- 2 katilu

Baxurde Krossa, lasterka bizian

U da giro betean ospatu zuten urriaren 23an bueltan herri bizitzara itzuli zen 13. Baxurde Krossa. Ingurune berririk zeharkatu zuen herri lasterketak; Arane-rreka parke berritua. 140 partaide batu zituen hitzorduak, haie-tatik 49 herrikide. Podiumean sailkatu ziren bi; sailkaturiko lehen hiru emakumezkoen artean ziren Maddi Olaetxea eta Rosa Uribe Navarro. Gaztetxoek ere bizi asko aritu ziren lasterka haurren kroseean.

Podiuma

Gizonezkoak:

- 1.- Xabier Lizarrondo (Donostia) 00:38:36
- 2.- Iosu Elola (Bidania-Goiatz) 00:39:08
- 3.- Asier Aburuza (Aduna) 00:39:11

Emakumezkoak:

- 32.- Lourdes Colomo (Zizurkil) 00:46:01
- 38.- Maddi Olaetxea (Usurbil) 00:47:00
- 40.- Rosa Uribe (Usurbil) 00:48:16

49 herrikide

Marc Bages Bosch 00:43:28



140 korrikalari batu ziren igandean Baxurde Krossean.

Igor Maiz 00:44:40
Unai Udabe 00:45:25
Alex Udabe 00:45:33
Jon Rueda 00:45:50
Peio Alkorta 00:46:02
Floren Lantz 00:46:09
Salvatore Arruti 00:46:49
Maddi Olaetxea 00:47:00
Rosa Uribe 00:48:16
Ander Orena 00:48:31
Aitor Agirre 00:48:52
Xabier Aizpurua 00:49:13
Guillermo Rueda 00:50:02
Ekhi Arrieta 00:50:04
Ainhoa Larrañaga 00:51:27
Xabier Carbayeda 00:52:03

Oliver Garcia 00:52:11
Jon Osa Unsain 00:52:24
Jokin Rezola 00:52:30
Aitor Ormazabal 00:52:41
Unax Lasa 00:54:00
Beñat Arruti 00:54:04
Gerardo Armendariz 00:54:16
Lukas Arrospide 00:54:54
Xabier Domínguez 00:54:55
Endika Mendizabal 00:55:48
Gorka Etxeberria 00:55:48
Oinatz Toledo 00:56:49
Kristina Bernal 00:58:09
Maddi Esnaola 00:58:19
Ane Bengoetxea 00:58:39
Jose Luis Bengoetxea 00:58:39

Jon Gueembe 00:59:59
Javier Martinez 01:00:14
Aloña Pulido 01:00:16
Aroa Arruti 01:00:18
Maialen Esoain 01:00:20
Irati Larrañaga 01:00:22
Joana Lertxundi 01:00:23
Uxue Fernandez 01:01:42
Txema Kortaxarena 01:02:38
Miren Aizpea 01:04:01
Arantza Esnaola 01:04:33
Asier Portularrume 01:04:41
Jon Arriaga 01:04:42
Eli Eizagirre 01:07:12
Maria Mitxelena 01:07:13
Andres Iturain 01:07:14



Helduen lasterketak amaitu eta gero hasi ziren gaztetxoek. Bideo-irudiak eta argazki gehiago noaua.eus web orrialdean.

SAGARRONDOTIK SAGARDORA 2022

Azaroak 4, **OSTIRALA**

ETORKIZUNeko SAGARGINTZA ETA SAGARDOGINTZA EKOLOGIKOA:

Ikuspuntu ekologikotik barietate desberdinak, txertorako mentuak, landaketa patroiak etab. landuko dira.

ENRIQUE DAPENA Jauna SERIDA-ko (Asturiasko Printzerriko organismo publikoa, ikerketa eta garapen teknologikoaren bitartez tokiko elika eta nezakaritza modernizatzeke) Frutagintzako ikerlaria da, Fruitu-arbola eta Basoetako Landaketa Sailean.




BETEBEHAR TEKNIKO-ADMINISTRATIBOAK:

Sagastiak ekologikora aldatzeko eman behar diren pausu eta betebeharrak administratiboak. ENEEK, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua.

ORDUTEGIA: 15:30-19:30 Potxoenean



SARRERAK: aldez aurretik usurbilkultura.eus plataforman eta alkartasuna.eus web orrian.



ETXEKOA, BERTAKOA

HERRIKOEN ZERBITZUA
BAINA HOBERIK BA AL DAGO?



Atetik sartzen
den bezero
bakoitzak
ematen die
bizia herriko
merkatariei.
Zuek ematen
diozue bizia!



hurbilago
USURBILGO MERKATARI ETA
OSTALARIEN ELKARTEA



gertuago.eus

Itxas gertuagorik ez duen HURBILAGOKO
dendak, berriak eta promozioak


Errigorako saskiak eskatzeko garaia da

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka kanpaina abiatu du Errigorak. Azaroaren 10era arte iraungo du eta Nafarroa hegoaldeko eta erdialdeko produktuz osatutako hiru saski eskainiko dira. Horien balioaren %25a zonaldeko euskalgintzari bideratuko zaio. Euskal herritarrek ere bat egitea beharrezkoa dela gogorarazi du Errigorak, “zonaldean AEK-k eta ikastolek euskaldunak sortzen jarrai dezaten, eta Sortzenek sare publikoan D eredia indartzeko lan egin dezan”.

“Errigorako saskiak osatzeko, inoiz baino auzolangile gehiago elkartu ziren aurreko asteburuan” Nafarroako Ablitas herrian. “Eta hurrengo asteetan ehunka herri eta auzotan ariko dira eskariak jasotzen eta banatzen”.

Onuraduna, euskalgintza

2013. urtetik hona, 1.600.000 euro bideratu dira Nafarroa hegoaldean eta erdialdean —ale-



“Errigorako saskiak osatzeko, inoiz baino auzolangile gehiago elkartu ziren aurreko asteburuan Nafarroako Ablitas herrian”.

HIRU SASKI AUKERAN

Errigoraren web orrialdean bideratu daitezke eskaerak, errigora.eus helbidean, edo NOAA!ko bulegoan

gia, Agerrean— euskaltzaleen egitasmoak sustengatzera. Aldi berean, elikadura burujabetzara bidean pauso sendoak eman dira.

Hiru saski aukeran

Azken urteetan egin den beza-

laxe, hiru saski izango ditugu aukeran:

- Saski beltza (55 euro), Errigoraren saski klasikoa.
- Saski berdea (65 euro), ekologikoa.
- Saski zuria (75 euro), berezia.

Eskaerak Internetez edota NOAAko bulegoan

Web orrialde honetan egin behar dira eskaerak: errigora.eus.

NOAA!ko bulegora etorri bestela, eta NOAA!tik bideratuko zaizue eskaera.

Perli eta Koxkolo pailazoak Aginagan arituko dira larunbat arratsaldean

Perli eta Koxkolo pailazoen ‘Bidaia liluragarri bat’ proposatuko diete Aginagako Eliza Zaharrera bertaraten diren guztiei. Antxomolantxa elkarteak antolatu du larunbat arratsalde honetako ekitaldia eta 17:30ean hasiko da. Sarrera doan izango da.

Perli eta Koxkolo oso saltse-roak dira. Musikaren eta dantzaren laguntzaz osatzen dute ‘Bidaia liluragarria’ izeneko emanaldia. “Aniztasunaren aldeko istorio musikatua, irudimena pizteko eta familia-giroan primeran pasatzeko”, pailazoen beraiek aditzera eman izan dutenez.



Antton Aranburu eta Lore Ibagurenen esanetan, “irudimena pizteko eta familia-giroan primeran pasatzeko moduko saioa” eskaintzen dute.

Antton Aranburu eta Lore Ibaguren dira ikuskizun honen sortzaileak. Esan bezala, larunbat honetan Aginagan izango dira. 17:30etik aurrera, Eliza Zaharrean.

Lur Korta ipuin kontalaria Sutegin

Lur Korta ipuin kontalaria herriko txikiekin izan zen aurreko astean udal liburutegian.

Pello Añorgaren txanda

Ostegun honetan ere (hilak 27), HH4ko haurrek aukera izango dute Pello Añorga ipuin kontalariaen istorioak entzuteko. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da, Sutegin udal liburutegian.



Lur Korta aurreko astean aritu zen Sutegin.

Booktegiren jaiak jende asko erakarri zuten

Euskarazko literatura guztion esku sarean jartzen diharduen Booktegi egitasmoak bosgarren urtemuga jaialdia ospatu zuen pasa den larunbatean Sutegin. ‘Poesia-itzulera’ emanaldi bereziak abiarazi zuen jaia. Egunak eman zuena luze zabal jaso genuen noaia.eus web orrialdean.



Eskaintza oparoa izan zen.

Badator Artisau Azoka

Azaroaren 1ean, 26. Artisau Azoka, Aitzaga elkartearen eskutik. Goizeko 11:00etan hasita ogibide anitzen bilgune izango da frontoi ingurua. 30 bat postu bisitatu, erosketak egin eta hamaiketako ederra, talo goxoa dastatzeko aukera izango da. Herri ordezkartitza ere izango du aurten Artisau Azokak.

Emakumeen Etxea, irekieratik hurbilago

Emakumeen Etxea eta kalezartarrentzako auzo ekipamendua bilduko dituen Pelaioenea barruko eraikuntza lanak abiarazi dituzte. Usurbilgo Udalaren aurreikuspenen arabera, 2023ko martxo-rako amaituak behar lukete lanok. 585.000 euroko inbertsioa bideratuko dute lanotara.

Pelaioenean kokatuko den Emakumeen Etxearen proiektua sustatzen ari den talde eragilea egoitza ireki aurreko prestaketa fase betean da. “Hala nola, etxearen zerbitzu eskaintza definitu eta antolatu beharko dugu. 2023ko programazioa zehaztuko dugu, etxe barruan gertatuko dena irudikatuz. Eta aurreko fasean definitzen hasi ginen kudeaketa eredua eta funtzionamendua gehiago zehaztu beharko ditugu. Lan horiek ikusgarriak izan ez arren, Emakumeen Etxea martxan jarri ahal izateko ezinbesteko lanak dira”, Eva Ugartemendia talde eragileko kidea-



Argazkian, Pelaioenean kokatuko den Emakumeen Etxearen proiektua sustatzen ari den talde eragilea. Egoitza ireki aurreko prestaketa fase betean dira.

EVA UGARTEMENDIA

“Emakume oro etxekide sentitzea nahi dugu”

ren esanetan.

Barrura begira soilik ez,

proiektua herriratzeko asmoa dute. “Usurbilgo emakumeok proiektua ezagutu eta gurea ere sentitu dezagun. Hau ez baita emakume talde zehatz batentzako udal ekipamendua. Herriko beste eragile eta proiektuekin zubiak eraiki eta

emakume oro etxekide sentitzea nahi dugu”.

Zereginotan “gogotsu gabiltza”, adierazi du. “Prozesua abiatzean genuen ametsa gauzatzen ari garela ikustea, horren parte izatea, bizipen ederra da”.

“Emakumeen Etxea udal zerbitzu bat baino gehiago da”

Etxe irekia izatea nahi dute Pelaioeneakoa. “Usurbilgo Emakumeen Etxea ekipamendu espazio konkretu bati lotutako udal zerbitzu bat baino gehiago da. Emakumeen Etxeak adin, esperientzia, jatorri eta ikuspegi anitzetako emakumeak biltzeko, elkar ezagutzeko eta bizipenak, kezkak, arazoak askatasunez partekatze gunea izan nahi du”, Josune Estellaren esanetan.

Bistan denez, espazioa oraindik erabilgarri ez dagoen arren, Emakumeen Etxea, proiektu gisara “jada martxan da”. Elena Rikondoren hitzetan, “aurreko ikasturtean bide-orri bat jaso genuen. Lehen urratsa inspiratzea izan zen. Horretarako, martxan dauden beste Emaku-

meen Etxeetara bisitak egin genituen eta oso garrantzitsua izan zen haien esperientziak zeintzuk izan diren ezagutzea. Errenteriako Emakumeen Etxea eta Hernaniko Plaza Feminista bisitatu genituen”.

Lankidetzak, bidelagun

Lanketa honek guztiak, Pelaioenean elkarbiziko diren kalezartarren udal ekipamendua eta Emakumeen Etxea sortzeko Usurbilgo Udalak Elhuyarrek lankidetzan 2020an abiarazitako parte hartze prozesuan du jatorria. “Sei hilabetez aritu ginen lanean emakumeekin eta Kalezarko auzokideekin eskutik eskura, etorkizuneko Pelaioenean irudikatzen genuen bien arteko bizikidetzak egitasmoaren

bide-orria zehazteko. Orduz geroztik, auzotarrek, auzo elkar-teak martxa hartu zuten eta lanei ekin zieten. Emakumeek ere etxea ireki bitarteko aurre-lan eta sustapen lanaz arduratuko zen talde sustatzaile bat sortu zuten”.

Prozesu haren lehen fasean 21 emakumeek parte hartu zuten, egun zortziko talde eragile osatua dute. Baina bilgunea zabalik da noski. “Orain arte bezala elkarlanean aritu nahi dugu, udal ordezkariok eta proiektu honetan ekarpena egin nahi duten ororekin, azken batean Emakumeen Etxea eta Pelaioenea bera elkarlanerako, topagunerako, harreman berretarako espazio bat izatea nahi genukeelako. Guztion helburua

delako, guztiok partekatzen dugun helburua delako auzo herri bizigarri, kohesionatu eta berdinzale bat eraikitzea”, taldeko kide eta Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesa-ren esanetan.

Illo horretan, proiektu estrategikotzat jotzen du azken txanpara heldu den egitasmo hau. Datorren udaberrian irekitzen dutenean, “Emakumeen Etxea Usurbilgo emakumetzat erreferentziazko gune bat izatea nahiko genuke, emakumeak ahalduzko espazio bat, herriko emakume ezberdinok elkar ezagutu, elkar topatu, elkar zaindu, hausnartu, zergatik ez konspiratu, maitatu eta eraikitze guneak izatea nahiko genuke”.

“Herritarrek emandako mandatua gauzatzeko lanak abiatuta daude”

Azken bi urteotan, Udala, Elhuyar, Usurbilgo mugimendu feminista, berdintasunaren alde jardun edo aritu nahi zuten emakumeak elkartu dituen “parte hartze prozesu zabal eta handi bat egin dugu”, alkateak oroitarazi bezala, “etxe hau Usurbilgo emakumeen neurri-egindako proiektu bat izatea nahi genuelako”.

Prozesuan zehar, “hainbat gairen bueltan hausnartu genuen; zer den Emakumeen Etxea, zertarako behar ote dugun halako etxe bat, zer beharrei erantzun behar dien, zer funtzio dituen, zer ezaugarri, zer erabilera eman nahiko geniokeen, nola kudeatu”. Nola kudeatu, jakinik eraikin berean kokatuko dela baita kalezartarren auzo ekipamendua. “Auzo



Emakumeen Etxea izateaz gain, Kalezarko auzo elkartearen egoitza ere izango da Pelaioenea berritua.

SUSTATZAILEAK

“Etxe hau Usurbilgo emakumeen neurri-egindako proiektu bat izatea nahi genuen”

elkarteak ere bazuen zer go-goetatu, auzo elkartearen fun-

tzioaz, auzo ekipamenduz. Beraz, bi prozesuak modu paraleloan egin genituen, biak ere ondo uztartzeko”.

Parte hartze prozesu hartatik proposamen bat sortu zen eta hortik garatu den proiektu arkitektonikoa. “Juxtu azken hilabete luzeetan Udalean

horretan aritu gara, proiektu arkitektoniko hori gauzatzeko eman beharreko urrats guztiak egiten. Pelaioenea barrutik egokitzeko eta proiektu horretan parte hartu zuten herritarrek emandako mandatu hura gauzatzeko lanak abiatuta daude”.

“Eragile guztiok Kulturgunean elkartzea proposatzen dizuegu”

Iaz, Usurbilgo euskarazko kulturgintzaren ekosistemako eragile eta kide diren hainbat herritar, “euskarazko kulturgintzak gure herrian bizi duen egoerari buruzko iritziak eta kezkak partekatzeko bildu ginen. Herriko 50 eragile baino gehiagoren ekarpenak jasoz ohartu ginen elkartzeko beharraz”. Mugimendu hark Usurbilgo Kulturgunearen jaiotza ekarri zuen. Herriko eragileen arteko elkarlana sustatu nahi dute eta laster hainbat deialdi egingo dituztela adierazi dute ohar bidez.

NOAUA!ra igorritako idatzian, aurtengo martxoa bitartean eginiko gogoeta-prozesuaz mintzo dira. “Emaizta gisa, Usurbilgo Kulturgunea abiarazteko proposamena adostu genuen, oinarri hone-



Lau lan-ildo nagusi jorratu nahi ditu Usurbilgo Kulturguneak: Sormena, Plazak, Komunikazioa eta Transmisioa.

kin: euskal kulturazaleak sortzeko norabidean lan egitea herriko kultur ekosistemako kide guztiok”.

Euskarazko kulturgintza hauspotzeko, “herritar sortzaileak behar ditugu (amateurrak nahiz profesionalak); antolatzaileak izango diren herritarrek behar ditugu (herri ekimenetan nahiz erakunde

publikoetan); kulturgintzaren industrian jardungo duten profesionalak behar ditugu; kultur kazetaritza jorratuko duten herritarrek behar ditugu; transmisioa bermatuko duten herritarrek behar ditugu (etxean, hezkuntza arautuan, ez arautuan, aisialdian...). Kulturzale horiek guztiak osatzen dute herriko kultur ekosistema, eta

horiek guztiak norabide berean lan egiteko proposamena dakar Kulturguneak”.

Horretarako, lau lan-ildo nagusi jorratu nahi ditu Usurbilgo Kulturguneak: Sormena, Plazak, Komunikazioa eta Transmisioa. Ildo horiei lotutako proiektuak sortzeko eta garatzeko bokazioz jardungo du Kulturguneak. Eta egungo gabeziei erantzuteko, herriko eragileen arteko elkarlana sustatuko du.

“Hori dela-eta, kulturgintzaren eragile guztiok Kulturgunean elkartzea proposatzen dugu. Adi egon deialdiei”. Bien bitartean, Kulturgunearekin harremanetan jartzeko bide nagusia helbide elektroniko hau da eta berau baliadaiteke iradokizunetarako edo ekarpenetarako: usurbilgokulturgunea@gmail.com

Ekimenez gainezka dator azaroa Santuenean

Jaiak pasa ziren Santuenean, eta pixkanaka egunerokotasunean sartu dira auzotarrak. Ez dira geldirik egon ordea, eta azarorako hainbat ekimen prestatu dituzte haur zein helduentzat.

Azaroaren 3an, xake ikastaroa

Xake ikastaroa egingo dute azaroaren 3an arratsaldeko 18:00etan hasita. Lehen egun horretan bilera egingo dute ikastaroaren ordutegiak behar bezala zehaztu eta taldeak egiteko. Ikastaroak 10 euro balioko ditu helduentzat, 7 euro elkarteko kideentzat eta 4 euro adingabekoentzat.

Azaroaren 6an, pottokak eta jolasak

Azaroaren 6rako, igandez, pottokak eta kanpo-jolasak prestatu dituzte haurrentzat. Eskubaloiz plaza izango da



Xake ikastaroa egingo dute azaroaren 3an, arratsaldeko 18:00etan hasita.

AZAROAK 6 IGANDEA

“Pottokan ibilaldiak eta kanpo-jolasak iragarri dituzte Santueneko Eskubaloiz plaza”

goizean zehar (11:00-13:00) eta 2 euro balioko du sarrerak.

Azaroaren 18an, kosmetika tailerra

Kosmetika naturala egiten ikasi nahi duenarentzat tailerra ere izango da azaroaren 18an elkartean, arratsaldeko 17:30etan. 10 euro balioko du sarrerak, baina elkarteko kide direnentzat 7 euro baino ez.

Gabonetako gozogintza tailerra

Joan zen urtean arrakasta izan zuen gabonetako gozogintza tailerra birproposatu dute aurtengo ere. Azaroaren 18an eta 25ean izango dira, biak ostira-lez. 17:30ean hasiko da tailerra elkartean egoitza. 10 euro balioko du sarrerak helduentzat, 7 euro elkarteko kideentzat eta 2 euro adingabekoentzat.

Azaroaren 27an, ibilaldia

Azkenik, azaroko azken igandean, hilaren 27an, ibilaldia antolatu dute Santuenea eta inguruko bazterrak ezagutzeko. San Estebanetik gorako norantzan egingo dute ibilaldia, baina Ludotekan elkartuko dira goizeko 10:30etan bidea hortik abiatzeko. Arratsaldean, haurrentzako pelikula bat jarriko dute elkarteko egoitza. Musutrik izango dira bi ekimenok.

“Amaiurko independentziaren defentsa” zikloa

Nafartarrak taldekoen eskutik, azaroaren 5ean. “Nola aurkeztu espainiarrak ez ziren, izan nahi ez zuten, eta baxenabartarrak bezala, sekula espainolak izango ez ziren nafarrak”. Hortxe jardunaldi egunaren muina.

Azaroak 5, larunbata

■ 10:00 Idoia Arrieta. Hitzaldia: “Gure memoriaren une lausoak: XVI. mendeko geopolitikaren oharak”.

Lan honek XVI. mendeko geopolitikaren gainbegirada bi gertaeretatik abiatuta aztertzen du: Magallanes-Elkano mundubira eta Nafarroaren konkista.

■ 11:00 Pello Monteano. Hitzaldia: “Velaz, Amaiurko kapitaina” (gaztelaniaz).

Jaime Velaz (1475-1522) biografia zoragarria, espainiar konkistaren aurkako nafar erresistentzia inork ez bezala



Idoia Arrieta historialariak hitzaldia eskainiko du azaroaren 5ean. XVI. mendeko geopolitikaz ariko da.

GONBIDAPENAK

Sarrera doan da baina gonbidapena eskuratu behar da usurbilkultura.eus web orrialdean

pertsonifikatu zuen kapitaina. Borrokalari nekaezina, leialtasunak eta ohoreak berebiziko tokia zuen haren baitan. Dena-etxaldea, familia eta bizitzan eman zuen nafar izaten jarrai-

tzeagatik.

■ 12:00 Atsedenaaldia.

■ 12:30-14:00 Mahai-ingurua. Iñaki Idigoras, Ainara Artetxe, Iñigo Larramendi, Rafa Santxez.

Gonbidapenak:

usurbilkultura.eus atarian.

Antolatzaileak:

Nafartarrak Taldea. Laguntzaileak: Udala eta Nabarralde Fundazioa.

Eskolaz kanpoko kirol jardueretarako dirulaguntzak

Urriaren 28ra arte eskatu ahaliko dira, 2022. urtean norgehiagoka erregimenekoak ez diren kirol arloko dirulaguntzak. Ohi bezala, eskabideak udal erregistroan aurkeztu daitezke edota telematikoki usurbil.eus atarian. Kiroldegiko bonu eta ikastaroen kuotetan hobariak eskuratzeko aukera ere eskaintzen du Udalak, urte guztian.

Bi greba egun hezkuntza publikoan

Azaroaren 30erako eta abenduaren 14rako greba egunak deitu dituzte ELA, LAB eta STEILAS sindikatuek euskarri hezkuntza publikoan, hezkuntza lege aurreproiektuaren aurka.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trasteleku, balkoia, terraza. 688710916.

Alokairuan

Kaxkoan etxebizitza alokatzen da denboraldi motzetarako. Bi logela, egongela, sukalde-jangela balkoiarekin eta komuna. Altzariz hornitua eta sartzeko prest. Telefonoa/WhatsApp: 657770131

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume barentzako. 618032966

Usurbilen bizi den mutil gazte ukrainar batek gela bat alokatu beharra du. Urgentziazkoa da. 649 429 416

Alokairuan hartzeko etxe baten

bila nabil Usurbilen. 622925562

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? Animatu eta deitu hona: 680483164

Batxilergoko lehen mailako ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrek emango dizkion pertsona baten bila gabil-

tza. 608201745

Klase partikularrek emateko prest dauden zerranda osatzen ari da Udarregi Ikastola. Interesa dutenek 943 36 12 16 telefono zenbakira dei dezatela.

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jate-txean. 666 671 444

Lan eskaerak

Pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiteko lan bila dabilen neska euskalduna bat nabil. 626 604 527

Haurrak zaintzeko eta ingelesko klaseak emateko prest da goen neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz) Kurtsoan zehar arratsalde zaurrak zaintzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

Kurtsoan zehar klase partikularrek emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta esperientziaduna. 679219805 (Irati)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrek emateko lan bila nabil. 688645491 (Nahia)

Ostalaritzan edo pintura lanetan zein igeltsitzan lan bila nabil.

Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalaritzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

Emakumeak orduka zaintzeko lan bila nabil goizetan, arratsaldetan zein gauetan. 609 647 728

BESTELAKOAK

Giltza batzuk aurkitu nituen irailaren 28an, Zumarte ondoko parkean. Udaltzaingoa daude.

Gutxi erabilitako lau gupil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

600 litroko altzairu herdoilgaitzezko (acero inoxidable) kupela daukagu salgai. Sagardoarekin erabilitakoa: 620024663.

**Zorionak Ixiar eta**

Josune!! Ixiarrek 23an bete ditu urteak eta Josunek 31an egingo ditu. Zorionak bioi familia guztiaren partez eta muxu handi bana. Ondo pasa!

Futbol partidak**Urriak 29, larunbata Haranen:**

■ 10:00 Infantil neskak:
Usurbil FT A - Santo Tomas
Usurbil FT B - Goierri Gorri FK
■ 11:45 Kadete Preferenteak:
Usurbil FT - Real Sociedad C
■ 15:30 Jubenilak B:
Usurbil FT B-Amara Berri KE A
■ 17:45 Preferente neskak:
Usurbil FT - Segura KE

Urriak 30, igandea

■ 15:30 Kadete neskak:
Usurbil FT - Tolosa CF B

Urriak 29, larunbata kanpoan:

■ 9:30 Infantil mutilak,
Zarauzko Asti Txikin:
Zarautz KE C-Usurbil FT
■ 12:55 Kadete mutilak,
Lasarten: Ostadar-Usurbil FT B
■ 17:30 Jubenilak,
Azpeitiko Garmendipen:
Ikasberri KE A-Usurbil FT A
■ 18:10 Preferente mutilak,
Lasarten: Ostadar-Usurbil FT
■ 19:15 Erregionalak,
Donostiako Matigoxotegin:
Irauli Bosteko KK-Usurbil FT
■ Erregionalak:
Irauli Bosteko KK-Usurbil FT

Eskubaloit partidak**Urriak 29, larunbata**

■ 10:00 Zaratzen. Euskal Liga (kadete mutilak):
Zarautz KE-Saizar Usurbil KE
■ 11:30 Zaratzen. Euskal Liga (jubenil mutilak):
Zarautz KE-Usurbil KE

Azaroak 1 asteartea

■ 12:00 Jesuitas kiroldegia.
Euskal Liga (senior mutilak):
-Universidad de Deusto-Loyola
-Usurbil KE

Euskal Selekzioarekin

Peru Iraeta eta Iker Nazabalek Euskal Selekzioan parte hartzeko deia jaso dute.

Pilota partidak**Urriak 28, ostirala****18:00 Usurbilgo frontoian:**

■ Alebinak (2. urtea), 1. m:
- Pagazpe (Alejo M.)
- Behar Zana (Eizagirre)
■ Infantilak, 2. m:
- Pagazpe (Indakoetxea)
- Añorga-Makatzaga
■ Kadeteak - 2. m:
Pagazpe - Tolosa 1

Pagazpeko**German Elkoro****eta Beñat Lizaso,****Biarritzeko Jai Alain**

Euskal Pilotako Mundu Txapelketaren baitan, zesta puntako finalak jokatu dira larunbat honetan Biarritzeko Jai Alai pilotalekuan. "Aurretik kirol egokitu pala ikuskizuna jokatu dute Usurbilgo Pagazpeko German Elkoro eta Beñat Lizaso bikoteak (Espainia ordezkatzuz), Yann Meunier eta Maixi Cabanne Frantziako selekzioaren aurka". Pagazpetik aditza eman dutenez, "lehen aldiz egingo da horrelako ikuskizun bat mundu mailako txapelketa batean".

Jaialdia larunbat honetan izango da, arratsaldeko 15:00etatik aurrera.

Goardiako farmaziak

Osteguna 27 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 28 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 29 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 30 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 31 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 01 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteazkena 02 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Osteguna 03 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 04 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 05 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 06 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda urria

28 ostirala

■ **Sareren mobilizazioa.** 20:00etan Mikel Laboa plazan.

29 larunbata

■ **'Bidaia liluragarria', Perli eta Koxkoloren eskutik.** 17:30ean Aginagako Eliza Zaharrean. Sarrera doan. Antolatzailea: Antxomolantxa elkarte.

30 igandea

■ **Ordu aldaketa.** Goizaldeko 3:00etan 2:00ak izango dira.

■ **"Harri minak" antzezlan.** 18:30ean, Suttgin. Sarrerak doan, usurbilkultura.eus plataforman.

Pello Añorga udal liburutegian

Udazkeneko ekitaldi sorta aurreko astean abiatu zen Suttgin udal liburutegian. Lur Korta ipuin kontalariaren eta Jon Bilbao idazlearen bisitak jaso eta gero, Pello Añorga ipuin kontalariaren txanda iritsi da. Ostegun honetan HH4ko haurrentzako saioa eskainiko du Suttgin. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da ekitaldia. Azarorako ere hainbat saio iragarri dituzte.

Urriak 27, osteguna

■ 18:00 Pello Añorga ipuin kontalaria HH4ko haurrentzat.

Azaroak 3, osteguna

■ 18:00 Maite Franko ipuin kontalaria HH5eko haurrentzat.

Azaroak 15, asteartea

■ 19:00 Garbiñe Larrearekin solasean.



Ostegun honetan arratsaldeko 18:00etan hasiko da saioa. HH4ko gaztetxoei eskainia izango da.

Bere "Sendabelarrek dakitena" liburua hartuko dute ahotan.

Azaroak 30, asteazkena

■ 19:00 Euskarazko irakurketa-topaketa Idoia Garzes idazlearekin. Bere *Mendiko gaitza* (Elkar) liburua hartuko dute ahotan.

Azken ostiraleko elkarretaratzea

Sarek deitutako hileroko azken ostiraleko mobilizazioa, urriaren 28an 20:00etan Mikel Laboa plazan. Gogoan izan, egun horretarako iragarria zegoen kontzertu gaua bertan behera uztea erabaki zuela Sarek iraila amaieran.

Asteburu honetan, ordu aldaketa

Asteburu honetan erlojuak neguko ordutegira egokitu beharko ditugu. Igande honetan (urriak 30), goizaldeko 03:00etan 02:00ak izango dira. Beraz, ordubete gehiago izango dugu gau horretan.

Datozenak

"Harri minak" antzezlan Suttgin

Urriak 30, igandea

■ 18:30 "Harri minak" antzezlan Suttgin. Sarrerak doan, usurbilkultura.eus plataforman.

■ Antolatzaileak: Udalbiltza Partzergoa eta Usurbilgo Udala.

Sagarrondotik Sagardora

Azaroak 4, ostirala

"Sagargintza eta sagardogintza ekologikoa" izeneko tailerra antolatu du Alkartasuna Kooperatibak azaroaren 4an, 15:30-19:00 artean Potxoenean.

'Cervantesen intermesak' antzezlan Suttgin

Azaroak 4, ostirala

"Cervantesen intermesak: dibortzioen epailea, zahar jeloskorra" antzezlan antolatu du Gure Pakea elkarteak azaroaren 4an, arratsaldeko 19:00etan Suttgin. Sarrera borondatezkoa izango da.

Kalakan, Aginagan

Azaroak 5, larunbata

Azaroaren 5ean Kalakan zuzenean arituko da Eliza Zaharrean. Gaueko 22:00etan hasiko den emanaldirako sarrerak 10 eurotan eskura ditzakezue usurbilkultura.eus plataforman.

ANORGA TXIBI S.L.

KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak • beira bikoitza
- segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Usurbil Autoak

MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79



*Santu guztien egunean,
aukera zabala!*



URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55



MUNDUALDIA 2022

azaroak 4, ostirala

18:00 Potxoenean, TERTULIA FILOSOFIKOA

LH6ko ikasleei zuzendua, Oinherri herri hezitzailearen eskutik

azaroak 5, larunbata

Goizean: 11:30 / 13:00 (frontoi inguruan).

Munduko jolasak, Zirimararekin.

Arratsaldean: 18:00etatik aurrera (frontoian)

Aurkezpena. Alkatearen agurra eta Aniztasun Kontseiluaren aurkezpena.

Jakien dastaketa. Musika emanaldiak: Saul eta Alvaro herrikide nikaraguarrek, eta Kawadeni taldea, Afrikako perkusio doinuekin.

azaroak 10, osteguna

18:00 Potxoenean, HITZALDIA

Mario Zapata: Etorri berrien harreraren garrantzia: guztiok dugu zeregina.

*Zatoz Usurbilgo jatorri
aniztasuna ospatzera!*



Usurbilgo Udala